


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 21a / 477. zenbakia


Hemen
dira
Gabonak!



AURREKONTUA: KIROLGUNE BERRIA, 1.500 MILIOI/6 • KULTURA: GABONETAKO KONTZERTUA ZAPATUAN/15


RENAULT

Renault kontzesionario batek gaur egun eskaintzen dizun guztia, zure eskura



Berrogei urte baino gehiago zure zerbitzura.

Zerbitzu azkarra eta Renaulten Menu Horia.

Renaulten gama osoa daukagu, Merkataritza eta Industria Ibilgailuak barne.

Aukerako ibilgailuetan eskaintza zabala.

Zorionak eta urte berri on guztioi!

MECA

San Andres auzoa.

ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72

Industri poligonoa (Anoeta).

TOLOSA. Tel.: 943 65 28 43

Amillaga, 5.

BERGARA. Tel.: 943 76 40 68




ATREBENTZIAEZPADA/ Gabonetako erosketak herrixan ala herritik kanpo egiten dituzu?



MARIA GLORIA ELUSTONDO
72 urte

Bai oparixak eta bai Gabonetarako bestelako erosketak herriko dendetan egiten ahalegintzen naiz. Eta gainera, Gabonetan seme-alabek be ekartzen doste gauzak etxera.



JOSE MARIA COT
30 urte

Kanpuan, gehixenbat, herrixan oso gutxitan. Zentro komertzialetara juatia gustatzen jat; neretako erosuagua da, bariedade haundixagua dagolako eta dana eskura daukatelako.



CARLA LUGO
30 urte

Normalian, Arrasatera juaten naiz erosketak egittera, zentro komertzialera. Dana dala, oparixen kasuan, gustatzen jaten zeozer ikusten dotenian hauraxe erosten dot.



JUAN RAMON ALLENDE
35 urte

Ahal doten danian, behintzat, erosketak herrixan bertan egittia gustatzen jat. Gainera, kanpora juateko denporarik be ez dot eukitzen, eta hemengo dendarixak ezagutzen dittut.



MARI KARMEN GUTIÉRREZ
42 urte

Gehixenak herrixan; herriko dendetan erostia beti da hobe. Gainera, oparixak hobe izaten da herrixan bertan erostia, aldatu biharrira edo beste arazoren bat tokauta be.



ANTON ARRILLAGA
54 urte

Herrixan egiten dittugu erosketak; baitta Gabonetan be, oparixak eta beste-lakuak. Nik uste dot erosuagua dala herrixan egittia. Gainera, aukera zabala dago herrixan.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK SAIHESBIDERAKO SARRERA Ertzaintzaren komisaria berriaren ondoko bidegurutzera igarotzea "abentura" bat dela diosku irakurle batek. Oso ikusmen urria dago, batez ere, Ibargarai kale-tik San Antoniorantz hartzeko. Eta ez auto ilarak daudenean soilik. Herritar horren esanetan, lorategiko landareek ere ez dute askorik laguntzen. Oso gune arriskutsua da haren esanetan./ M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Gabonak gainean ditugu

Umeen aisialdirako hainbat proposamen egin ditu Udalak: ur jolasak eta jolas parkea, esaterako.

KIROLAK /10

Gazte futbol taldea bikain

Ohorezko gazte mailako futbol taldeak 8-1 irabazi zion domekan Aloña Mendiri, Agorrosinen.

KULTURA /15

Gabonetako kontzertua

Gabonen atarian, herriko musika taldeek Gabonetako kontzertua eskainiko dute zapatu gauean.

ASTEKO DATUA

7.750

GABONETAN APAINGARRI GISA JARRITAKO BONBILLAK

Gabonetako apaingarriak non jarri dituzten begi-bistakoa da. Baina argiteriari dagokionez, zenbat bonbilla behar izan ote dituzte herria apaintzeko? Gokopuru hori, hain zuzen ere.

IRAKURLEAK MINTZO

MUSIKA, ANIMATZEKO

Badira aste batzuk, Bergarako gaugiroari buruz idatzi nahi nuela, eta azkenik, "animatu" egin naiz. Gainera uste dut hori dela hitz klabea, hain justu ere: animatu. Garbi dago animazioa norberak bere barrutik atera behar duela, baina egia esan, azkenaldi honetan tabernetako musikak ere ez du askorik laguntzen. Gaua animatzeko, lauzpabost aldiz entzun ohi dugu abesti bera, eta horrek ni neu, behintzat, aspertu egiten nau. Non gelditu dira euskal musika, rock-and-rolla eta beste hainbat musika mota? Urte berriak ekarriko dituen aldaketak kontuan hartuta (euroa), ea musikak ere aldaketarik jasaten duen.

IGOR LARRAÑAGA

BERAIEK DIÑO/E Aitziber Azkondo



Kontzientzia garbi

Tratu Txar eta Giza Eskubideen Nazioarteko eguna... eta beste hainbat egun gogoratu ditugu azken boladan, besteak beste, komunikabideei esker. Gabonak eta, nola ez, bihotza epeldu, bigundu egiten zaizu bat-batean, zerbaiten eraginez. Beharbada, telebistako hainbat katetan agertzen diren Hirugarren Munduari zuzenduriko programa dotore horietakoen kontu korrontean 1.000 pezeta eman eta gure kontzientziak garbi geldituko dira urte berri osorako. Hori! Umetan egiten genuen bezala! Gaiztakeriak egin eta konfesatuz gero, dena ezertan geratuko denez... hurrengoan ere... konfesatzea irtenbidea! Hau guztia emakume bikote baten elkarrizketa entzun ondoren etorri zitzaidan burura. 10 minutu inguruan Bin Laden non izango deneko kezka, ekialde hurbileko emakumeek bizi duten egoera, ingurukoek jasaten dituzten tratu txarrak, eta duela bi urte

GKE batekin kolaboratzen hasi zirela izan zituzten hizpide. Elkarrizketa entretenigarri eta interesgarria, esan nion nire buruari... Gero, zeramatzaten erosketa poltsak begiratzeko txanda iritsi zen. Batek besteak baino afari goxoagoa prestatu behar zuela: txangurroa batek, besteak legatza...

"Aurrean zernahi jartzen zaigula ere, horratx gu, xupata-xupa. Lagunari munduan dauden bidegabekeriak salatu eta listo"

Joateko uea iritsi zitzaidan gogoz kontra. Han utzi nituen biak, firinfaran, pozik baino poziago, Gabonetarako aurrekontua handitu beharrean zeudela eztabaidan. Hori bai gustuko! Ordu erdiko hitzordua Gabonetan jan beharreko kezka.

Euskaldunon Egunkarian Josu Lartategik idatzitako iritzi artikulua zioenez, "komunikabideetako hitz jario amaiezina begiratu eta guk egiten duguna txupatxusa xupatzea da. Aurrean zernahi jartzen zaigula ere, horratx gu, xupa-ta-xupa". Lagunari munduan dauden bidegabekeriak salatu eta listo, kontzientzia garbi!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- ZAPATUA, 22**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 23**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 17**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 18**
PUY. Barrenkale 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 19**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 20**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| Santa Marina | Domekak: 10:30. |
| Domekak: | Labegarieta |
| 11:30, 13:00. | Domekak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | San Lorentzo |
| Lanegunak: 19:15. | Zapatuak: |
| San Pedro | 20:00. |
| Domekak: | Angiozar |
| 09:30, 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak eta | 11:30. |
| lanegunak: 19:00. | Moja |
| Sierbak | Zaharrak |
| Lanegunak: 19:30. | Lanegunak: 8:00. |
| Osintxu | Mizpirualde |
| Domekak: 12:30. | Lanegunak: 11:45. |
| Zapatuak: 19:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Elosu | Antzuola |
| Domekak: 10:30. | Domekak: |
| Ubera | 09:00, 11:30. |
| Domekak: | Zapatuak eta |
| 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| San Juan | Uzarraga |
| Domekak: 11:00. | Domekak: 10:00. |
| Elorregi | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

OHARRAK

1927AN JAIOTAKOAK
1927an jaiotako bergararrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte 2002ko urtarrilaren 26an. Egun horretan 13:30ean elkartuko dira txikiteoa egiteko, eta 14:30ean, bazkaria egingo dute Zumelaga jatetxean. Bazkalostean, udarako irteera bat egitea aztertuko dute. Bazkarirako izena ematea Euskadiko Kutxako bulegoetan egin daiteke (2.000 pezetako depositua ordaindu beharra dago).

1951N JAIOTAKOAK
Joan den azaroaren 10ean 1951n jaiotakoen afarira joan zirenek argazkia eta egutegia Kiñu argazki dendan jaso ditzakete. Egutegian Gabonetako loteriako zenbakia azaltzen da. 1.000 pezetako txartelak dira.

MENDIKO FEDERATU KARNETA
Pol-Pol Mendizale Taldekoak datorren urteko mendiko federatu karnetak egiten hasi dira. Astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30era Pol-Polen. 943 76 48 51.

IGERILEKUAK GABONETAN
Agorrosingo igerilekua goizez bakarrik egongo da zabalik abenduaren 24an eta 31n. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren leian eta 6an, itxi egingo dituzte.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AISIALDIA
Zapatu arratsaldean, Trumika eguna ospatuko dute gaztetxoek Kartzela Zaharrean, 16:00etan. Santamas jaia ere egingo da, eta Kartzelara hurbiltzen diren guztiendako txistorra-jana izango da. Domekan, Olentzerori ongetorria egingo zaio Kartzelan, 16:00etatik aurrera.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Euskara hitzarmena sinatu zuten 42 taldek

Herriko 42 taldek euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten orain dela 10 urte, 1991ko abenduaren 21ean, hain zuzen. Talde sinatzaileez gain, besteak beste, Mari Karmen Garmendia Hizkuntza Politikorako idazkari nagusia izan zen Udaletxeko ekitaldian.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Miaztu"

Miazkatu, lamikatu.
-Beixak eskua miaztu dotsa umiai.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 15	-7 °C
MAXIMOA Eguaztena, 12	8 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,3 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	8 °C	-4 °C	- l/m ²
Eguena, 13	6 °C	-2 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 14	5 °C	4 °C	0,3 l/m ²
Zapatua, 15	3 °C	-7 °C	- l/m ²
Domeka, 16	5 °C	-2 °C	- l/m ²
Astelehena, 17	4 °C	-1 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'NI UNA PALABRA'

ZUZENDARIA: GARY FLEDER. AKTOREAK: MICHAEL DOUGLAS, SEAN BEAN, BRITTANY MURPHY.

HARIA. Elisabeth Burrowsek arazoak izan ditu urtetan, eta *Nathan Conrad* psikiatraren ardurapean dago. Gaizkile talde batek *Conraden* alaba bahitu ondoren, *Burrowsek* zeresana izango du...

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean, zapatuan 19:30ean eta 22:30ean, eta domekan 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'JURASSIC PARK 3'

ZUZENDARIA: JOE JOHNSTON.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Zapatuan eta astelehenean, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'LA MALDICION...'

ZUZENDARIA: WOODY ALLEN.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesen. Martitzenean, hilak 25, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'JUNTOS HASTA LA MUERTE'

ZUZENDARIA: RAOUL WALSH. AKTOREAK: JOEL MCCREA, VIRGINIA MAYO, DOROTHY MALONE.

HARIA. Forum Cinematographe taldekoek abendurako antolatutako bigarren eta azken emanaldia. Raul Walsh zuzendariak 1949. urtean filmatu zuen *western* klasiko hau.

TOKIA ETA ORDUA. Novedadesaretoan. Eguenean, hilak 27, 20:00etan. Jatorriko bertsoan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra egiten dituzun erosketengatik oparia emango dizugu



Usaindegia

Jai zoriotsuak izan ditzazuela!

GABONAK/ Goizez ur jolasak izango dira igerilekuetan, eta arratsaldez jolasparkea Labegarietako kiroldegian

Gabonetan gaztetxoendako aisialdi programa zabala antolatu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Gaztetxoendako Gaboneta-ko aisialdi programa zabala antolatu du aurten ere Udalak, nahiz eta berritasun nabarmenik ez dagoen. Urtero moduan, Olentzero, Bizar Zuri eta Hiru Erregeak etorriko dira. Horrez gain, ur jolasak eta jolasparkea ere izango dira.

Ur jolasak, jolasparkea, Olentzero, Bizar Zuri, Errege kabalgata, Marsel magoa eta pailazoak. Hori xe da, hain justu, umeen Gabon aisialdirako Udalak egin duen eskaintza.

Horietatik guztietatik lehenengoa ailegatzen Olentzero izango da. Abenduaren 24an, San Martin plazara hurbilduko da, 19:00etan, eta umeen kartak jasoko ditu. Abenduaren 30ean, Tutik ere Clowns pailazoen txanda izango da. *Ez adarrik jo* emanaldia egingo dute Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Eta urtarrilaren 5ean, Bizar Zuri eta Hiru Erregeak etorriko dira. Bizar Zuriri dagokionez, Udaletxean izango da, 18:00etan, umeen kartak jasotzeko, eta Errege kabalgata, berriz, 19:30ean izango da.

Ekitaldi eta aisialdigune horiek guztiak hamalau urtetik beherako neska-mutikoendako antolatu dituzte.

JOLASPARKEA ETA UR JOLASAK

Umeen aisialdirako gune erakargarrienak hilaren 26an, eguaztenean, irekiko dituzte: jolasparkea eta ur jolasak. Eta bata zein bestea hilaren 29ra arte egongo dira zabalik. Jolasparkeari dagokionez, Labegarietako kiroldegian izango da, 15:30etik 18:30era bitartean. Eguneroko sarrerak 325 pezeta balioko du eta derri gorrezkoa izango da kirol oinetakoak eramatea. Horrez gainera, bost urtetik beherako umeendako txoko bereziak izango dira. Gainera, jolasparkearen azken egunean, hau da, abenduaren 29an, ikuskizun berezia izango da: Marsel magoaren ikuskizuna, hain zuzen ere. 17:45ean



ARGAZKILARIA

Errege kabalgatak neska-mutiko askoren gozamenara egingo du urtarrilaren 5ean.

Olentzero San Martin plazan egongo da 24an, 19:00etan, umeen kartak jasotzeko

izango da eta sarrerak 400 pezeta balioko du.

Ur jolasen kasuan, bestalde, Agorrosingo igerilekuetan izango dira, eta beste ordutegi bat izango dute. Jolasparkea arratsaldez egongo da irekita, eta ur jolasak, berriz, goizez, 10:30etik 12:30era, hain justu ere. Sarrerari dagokionez, eguneroko sarrerak 225 pezeta balioko du Kirol

Bizar Zurik, berriz, urtarrilaren 5ean jasoko ditu gutunak, 18:00etan, Udaletxean

Zerbitzuko bazkideendako. Gainerakoek 325 pezeta ordaindu beharko dituzte. Horrez gain, ur jolasetan parte hartzeko, derri gorrezkoa izango da txanoa eramatea.

NAFAR FERIA SAN ANTONION

Horrez guztiaz gain, eta Gabonetan datorren astelehenean murgilduko bagara ere, dagoeneko

Ur jolasak eta jolasparkea 26tik 29a arte egongo dira zabalik; bata, goizez, bestea, arratsaldez

nabari da herriko kaleetan Gabon kutsua. Astelehenean, hilaren 17an, piztu zituzten argi apaingarriak, eta urtarrilaren 7ra arte egongo dira horrela. Erakusleiho lehiaketa ere abian da.

Bestalde, bihar, zapatua, San Antonioko auzotarrek dagoeneko ohitura bilakatzen ari den Nafar Feria egingo dute San Antonioko plazatxoan. Zortzi arti-

sau izango dira, iaz baino bat gehiago: Errioxako ardo artisaua, hain zuzen ere. Horrez gain, Nafar Ferian dastatu eta erosi ahal izango diren produktuen artean, ezitia, hestebeteak, gazta, ahatekia, ardoa eta gozoak daude, besteak beste.

Gainera, iazkoa baino ekitaldi sorta zabalagoa izango da feria egunean: 10:00etan, meza egongo da San Antonioko kaperan; 10:30ean, feria irekiko dute; 11:00etan, txistulariek alaitutako kalejira izango da; 12:00etan, Alai Taldea Otxoteak emanaldia egingo du eta hainbat Gabon kanta abestu; 12:30ean, Gure Ametsa elkartearen pintxoak egongo dira hurreratzen diren guztiendako; eta azkenik, 14:30ean, bazkaria. Jaiotza ere jarri dute, iaz bezala, San Antonioko biribilean.



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek gabon zoriontsuak eta urte berri ona opa dizkie bezero guztiei

Zurradero 6, behea
Telefona: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

AGORROSIKO KIROLGUNEA / Proiektuak apirilaren 2rako idatzita egon beharko du

Kirolgune berriak 1.500 milioi inguru balioko ditu

MONIKA BELASTEGI


Agorrosingo kirolgune berriko proiektua idatzi, eta obra zuzendaritzarako aurrekontua onartu zituen Udaltzako egueneko osoko bilkuran. Erabakia EAJ-EAren aldeko botoarekin eta Batasuna eta PSE-EEren abstentzioarekin hartu zuten.

Alvaro Perez de Amezaga eta Jorge Muntañola arkitektoek egingo dute Agorrosingo kirolgune berriko proiektua. Udaltzako antolatzen zuten ideia lehiaketako epaimahaiak bi arkitekto horien lana aukeratu zuten, eta egueneko osoko bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz, euren eskuetan geratu da proiektua idazteko ardura eta lanen zuzendaritza. Horrela, apirilaren 2ra arteko epea dute lana egiteko.

Eguenean hartutako erabakiak, 1.100 milioi pezetako exekuzio materialeko aurrekontua du. Hala eta guztiz ere, lan guztiak 1.500 milioi pezetara iritsiko dira lan zuzendaritza eta hainbat zerga gehituz gero. Kopuru horrekin, beraz, Agorrosingo igerilekuak goitik behera berregingo dituzte, eta Ipintzako futbol zelaiari belar artifiziala jarriko dute.

EZTABAIDA OSOKO BILKURAN

Arestian esan bezala, EAJ-EAren oniritzia eta Batasuna eta PSE-EE alderdien abstentzioa jaso



Exekuzio materialerako 1.100 milioietatik, 100 futbol zelaiari dagozkie.

zuten proiektuak egueneko osoko bilkuran.

Jesus Mari Garitanok hainbat puntutan oinarritu zuen Batasunaren abstentzioa. Garitanoren esanetan, Batasunak ez du izan proiektuaren gainean iritzirik emateko aukerarik. Ideia lehiaketako lanen artean aukeraketa egiteko eratu zen epaimahaian parte hartzeko aukerarik ez zutela izan azaldu zuen. Eta ate guztiak itxita izan dituztela. Bestalde, ez da egia Garitanoren esanetan, txostenean jasotakoa, hau da, Hirigintza eta Kirol batzordeetan hainbat bilera egin dituztela arkitektoekin. Bilerok batzorde

deko presidenteekin izango zirela gehitu zuen. Haatik, igerilekuen egoera kaskarra dela eta, kirolgune egoki baten proiektuarekin aurrera egiteko prest daudela gehitu zuen Garitanok. Ildo berean, epaimahaiak aukeratutako lanari ekarpenik ere egin diotela gehitu zuen, nahiz eta hautaketan parterik hartu ez.

Ekarpen horietako bat zera da: "behin 1.500 milioitan sartuta, eremua zabalduta eta Agorrosingo eremu osoa proiektuan sartzea, belarrezko futbol zelaiak barne". Alkateak, baina, hori dirutza izugarria izango litzatekeela erantzun zion.



Begoña Mujikaren familiak 72 urtez izan du La Union tabernaren ardura.

Artekaleko azken taberna, La Union, hilaren 31n itxiko dute

Abenduaren 31n banatuko ditu azken txikitoak Artekaleko La Union tabernak. Azken urteetan Begoña Mujikak izan du tabernaren ardura, bere aita Joxe hil zenetik. Baina Begoñak esan bezala, La Union ireki zuena Leonardo Mujika, bere aitona izan zen, duela 72 urte.

Leonardo Mujikaren aurretik beste bi nagusi izan zituen, eta baita beste bi izen ere, azkena-

Txanbolintzekua. Hori horrela, ehundik gora urte omen dituen tabernak Begoñaren esanetan.

AZKENENGO TABERNA

La Union da Artekaleko geratzen den azken taberna. Begoñak lau taberna zeudeneko garaia oroitzen du, Paldai, Jose Mari eta Bodegoia beste hirurak. Urteko azken egunarekin batera azken tabernak ere agur esango du.


LABUR

Gisasola, Maya, Kanela, Kilika eta Ninika dendentzat erakusleho lehiaketako saria

Gisasola ferreteriak, Maya jantzidendak, Kanela eta Kilika apainketek eta Ninika lore dendak jaso dute aurtengo erakusleho lehiaketako saria. Guztiek 25.000 pezeta eta oroigarria, hain zuzen ere.

Epaimahaia, Bedelkarrek, Beartek eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberako hainbat kidek osatu dute. Sarituen izenak jakitera eman dituzten arren, sari banaketa urtarrean izango da.

RIKARDO AZKARGORTA




pintura-erakusketa

NAHIKARI taberna. Masterreka 20. Bergara. Tf. 943 76 57 71

Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialakTelleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

KOMUNIKABIDEAK/ EAJ/EA eta Batasuna alderdiek onetsi egin dute; PSE-EE, berriz, abstenitu egin da

Goiena kooperatibaren eta Udalaren arteko hitzarmena onartu du udalbatzak

MONIKA BELASTEGI

Goiena kooperatibari laguntzeko erabakia hartu du Bergarako Udalak. Osoko bilkura izan zen atzo, eta hantxe onartu zuten zinegotziek Goienarekin hitzarmena egitea. EAJ/EAK eta Batasunak hitzarmenaren alde egin zuten. PSE-EE, berriz, abstenitu egin zen.

Hitzarmena 2002. urterako izango da, eta bertan bi aldeek arteko lankidetzaz zehazten da.

Goiena Telebistarekin, BERRIGARAko edizioarekin eta Goienkariarekin aurrera egiteko lankidetzaz, hain justu ere. Hori horrela, Bergarako Udalak 1.664 pezetako laguntza emango dio Goienari biztanleko.

Goienarekin hitzarmena egiteko erabakia atzo hartu zuen Udalak osoko bilkuran, EAJ/EAREN eta Batasunaren aldeko botoekin. PSE-EE alderdiko zinegotzi bakarra abstenitu egin zen. Haren esanetan, euskara hutsezko medioei laguntzeko dirua delako, herrian hainbat erdaldun egonik.

Goienkaria eta BERRIGARA edizioarekin ez bezala, GOITBren kasuan, hainbat arazo izan dira emisioa herri osora zabaltzeko. Goienak dagoeneko hartu ditu uhinak igortzeko neurriak, eta San Miguelen jarritako antenari egindako egokitzapenak direla medio, herri osora hedatzen dira. Udalak, bere aldetik, emisioak



UHFko 57. kanalean sintonizatu behar da GOITB; Zubiaurre, Martoko eta hiri erdialdean, berriz, UHFko 43.ean.

jaso eta zabaltzeko beharrezko gastu eta inbertsioak hartu ditu bere gain hitzarmenarekin.

NIK EZ DUT GOITB IKUSTEN

Esan bezala, uhinak herri osora heltzen dira, eta UHFko 57. kanalean har daiteke GOITB. Zubiaurre, Martoko eta hiri erdialdean (kable sistema darabiltenak),

aldiz, UHFko 43an. Hortaz, inork GOITB ikusten ez badu, hiru arrazoi hauetako bategatik izan daiteke: batetik, kanala sintonizatu barik egotea. Horrela bada, telebistaren oharretan daude sintonizatzeko argibideak. Bestetik, teiltuan antena kolektiboa eta ekipo modularra dutenen kasuan, modulu txiki bat baino ez dute

jarri beharko: 57. kanala hartuko duen modulua. Eta agian antena txikitxo bat ere bai. Argibide horiek teknikoak emango ditu. Azkenik, etxeko instalazioa txarto egotea. Horrela bada, GOITBz gain, beste kate batzuk ere gaizki ikusiko dira, seguruenik. Kasu horretan ere teknikoari deitzea da egokiena.

LABUR

Kanposantuko tasak aldatu egin dituzte alegazioengatik

Urriaren 22an, 2002rako kanposantuko tasa berriak onartu zituen udalbatzak. Hartutako erabaki haren arabera, enterramenduen prezioak bateratu egin ziren eta hilobiratze mota guztien prezioa berdindu: hau da, 46.472 pezeta (279,30 euro). Hori horrela, hiru herritarrek honakoa alegatu zuten: erabakiak %145 garestitzen dituela lurrean egindako hilobiratzeak, eta horrek eragina izango duela familiek ordaintzen duten aseguru polizan.

Udalbatzak hiru herritar horien alegazioa kontuan hartu eta beste prezio hauek ezarri ditu: batetik, panteoian edo burdinhesian hilobiratzeagatik, 5.460 pezeta (32,80 euro); lurpean, udal burdinhesi edo udal panteoian hilobiratzeagatik, 30.000 pezeta (180,30 euro), eta nitxoan, 43.950 pezeta (264,10 euro).

Zabor bilketaren gainean aldaketak Gabonetan

Gabonak direla eta, zabor bilketa zerbitzuak aldatu egingo du ordutegia hilaren 24an eta 31n. Etxeatiko zaborra 22:00etatik aurrera batu beharrean, 14:00etatik aurrera egingo dute. Hori dela eta, zaborra 13:00ak eta 14:00ak artean ateratzea eskatu dute.

**DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37


ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

Radio Bergara
Etxetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak
San Pedro 25
BERGARA
943 76 19 89

**BANKINTER**
www.bankinter.com
Eta orain zure hipoteka
%3,5*
Euribor-a +%0,50 garbia, ondoren
*Lehen sei hilabeteak, 35 urtera arte.
Herrilagunak 2, BERGARA 943 76 91 50

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49
Zubillaga 10 ONATI 943 78 24 13


943 76 48 08.
Zubieta 26
BERGARA

**POL-POL**
Taberna
943 76 07 78. Bergara

HARREMANEN AZOKA PLAZAN

Bidezko merkataritza bultzatzen duen Harreman elkarteak antolatuta, azoka txikia egon zen zapatu goizean Herriko plazan. Hirugarren munduan egindako hainbat produktu zeuden hantxe salgai: jatekoak, edariak, arropak... Hirugarren munduan egindakoak, baina lan baldintza egokietan egindakoak. Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeak batzen ditu Harremanek, tartean, baita BergarakoFISC ere. Arrasateko merkataritza zentroan postu finko bat daukate Harremanekoek. Han ere denetik egoten da salgai, bidezko merkataritzako produktuak, betiere.



ATHLETIC PEÑAKOAK SAN MAMESEN

Euren futbol taldeari animoak ematera joan ziren Bergarako Athletic peñakoak joan zen domekan San Mames futbol zelaira. Rayo Vallecano talde madrildarraren aurka irabazterik lortu ez zuten arren, egun polita pasatu zuten athleticizaleek. Bana berdindu zuten bi taldeek. 48 lagun athleticizale joan ziren guztira. Goizeko 10:00etan irten ziren Bergararik, eta Lezamara joan ziren, euren taldea entrenatzen den zelaira, hain zuzen ere; han, Athleticenko beteranoen taldeak Madrilgo euskal etxeko beteranoen taldearen aurka jokaturako partidua ikusi zuten. 7 eta 0 irabazi zieten bizkaitarrek madrildarrei. Ondoren, Lezaman bertan bazkaldu zuten, eta arrasaldean San Mamesera joan ziren.



BERGARARREN ARGAZKIAK SARITUAK

Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxaga bergararrek zilarrezko domina bana jaso dute, Gipuzkoako Argazkilarik elkarteak antolatutako Gipuzkoako nazioarteko lehiaketan. Paisaiaren kategorian jaso dituzte dominok. Benitok kolorezko sailean (ezkerreko argazkia), eta Jose Agustinek, berriz, diapositiben sailean (eskumakoa). Bestalde, ohorezko aipamen berezia ere jaso dute Bergarako argazkilariorik, eta baita beste hainbat sari ere, 14 sari guztira, bien artean. Kontuan hartu behar dugu 40 bat herrialdeetako 4.300 argazki aurkeztu direla lehiaketara, sail bakoitzean 700 bat argazki.



Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Agirrebeña

JATEKOA



Ibarra kalea 2 • Bergara • Tf. 943 76 20 38

Ganbara TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

Hara Zilarra
Ainhoa Ibarra

ZABALDU BERRIA
Boni Laskurain 4. Tel: 943 76 74 03.

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala) 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
LASKURAIN HORTZ KLINIKA Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

GINEKOLOGOA

- SERRANO Jose Ramon** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irupe** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43
BELASTEGI Mariasun Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIAKO KABINETEA** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.



E.M.

Ohorezko gazteen futbol taldea denboraldi bikaina egiten ari da. Bi partidu besterik ez dituzte galdu orain arte.

FUTBOLA

Ohorezko gazteen futbol taldeak 8 eta 1 irabazi zion Aloñari domekan

Fernando eta Jabi Oregik entrenatzen duten taldea sailkapeneko 2. postuan dago

EDU MENDIBIL

BKEko ohorezko mailako futbol taldeak 8-1 irabazi zion domekan Aloña Mendi taldeari, Agorrosinen. Jabi eta Fernando Oregiren mutilak bikain ari dira jokatzeko, eta sailkapeneko bigarren postuan daude, Irungo San Martzial taldearen atzetik.

Domekan, Aloñaren kontrako derbia, partidu ona egin zuten bergarrek. Hala ere, Fernando Oregik amaieran esan zuenez, emaitza gehiegizkoa izan zen beharbada. Kontuak kontu, ohorezko

mailako taldeak, golak egiteko orduan erraztasun handia duela azaldu du orain arte. Gol gehien egin dituen taldea da: jokaturako 14 partiduetan 56 gol sartu dituzte mahoneroek.

Imanol Cabanillas (4 gol), Julen Aranburu, Unai Agirre, Gorka Martinez eta Zigor Aiukar izan genituen golegileak domekan. Markagailuan 2-0 aurreratu ondoren, atsedenaldira gol bateko abantailaz joan ziren aldageletara etxeakoak (2-1). Bigarren zatian, berriz, askoz ere erosoago jokatu zuten, eta beste sei gol sartu zituzten.

Orain arte jokaturako parti-

duetatik 10 irabazi, bi berdindu eta beste bi galdu ditu Bergarak. Ligan 18 ari dira, eta txapelkunak Euskal Ligarako igoera lortuko du. Bigarren geratzen denak promozioa jokatuko du Arabako eta Bizkaiko txapelkunordeekin.

GABONETAKO TXAPELKETA

Gabonetako XI. Gazte Txapelketa, Bergarak Aloñaren aurka jokaturako du berriz, abenduaren 28an, 17:00etan Ipintzan. Beste finalerdia Realak eta Eibarrek jokaturako dute bezperan, ordu eta toki berean. Finala, berriz, Agorrosinen jokaturako dute abenduaren 31n, 16:00etan.

FOTOKIROLA



Senior eskubaloi taldea lider oraindik

Senior mailako eskubaloi taldeak Tolosaren aurka jokaturako du domekan, 12:00etan Kiroldegian. Asteburuan, Pasaian, Donibaneren aurka galdu arren (37-19), Edu Orgazen taldeak lider jarraitzen du, Arrate, Egialde eta Donibaneren aurretik.

IGERIKETA

Igerilekuak hainbat egunez itxita Gabonetan

Urtarrilaren 2tik 5era, Agorrosingo igerilekuak itxi egingo dituzte garbiketa egin ahal izateko. Era berean, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an itxita izango dira. Abenduaren 24an eta 31n goizez egongo dira zabalik.

MULTIKIROLA

Pilotalekuak eta tenis pista alokatzea

Datorren urteari begira Bergarako pilotalekuak edota Kiroldegiko tenis pista alokatzeko interesa dutenek, urtarrilaren 2ra arte izango dute eskaera egiteko aukera. Udal Kirol Zerbitzuko bulegoan egin beharko dituzte eskaerak. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

EMAITZAK

A MULTZOA	
Amilotx-Eri	0-6
Mongatxurak-Kanpazar	3-3
Komando Piperrak-Bar Ganbara	8-4
A Ze Flaxa-Agirrebeña	7-5
B MULTZOA	
Etengabe-Aterpe	1-15
Bar Canalejas-Txipiron	6-3
Artakale pizzeria-Bar Bedarreta	1-5
THT-Vacalouras	2-1
Amoskibar-Irubide	3-3
C MULTZOA	
Dedo Pafarru-Timofonika Team	4-3
Argandolas-Artusamak	4-7
Ortzi-Patxaran Team	6-10
Bayer-Pagomendi	1-4

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. A Ze Flaxa	27	10	
2. Mongatxurak	20	10	
3. Agirrebeña jatetxea	19	11	
4. Bar Ugarte	16	9	
5. Komando Piperrak	14	10	
6. Eri	13	10	
7. Kanpazar	13	10	
8. Torrekua	9	10	
9. Amilotx	4	9	
10. Biciprecisión Igartua	4	9	
11. Bar Ganbara	1	9	
B MULTZOA		P	J
1. Bar Bedarreta	31	11	
2. Bar Canalejas	24	11	
3. Aterpe	24	11	
4. Vacalouras	17	11	
5. Irubide	15	10	
6. THT	14	11	
7. Amoskibar	11	11	
8. Artakale	9	11	
9. Txipiron	5	10	
10. Etengabe	0	11	

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Bicip. Igartua-K. Piperrak. Agirreb.
10:30: Agirrebeña-Mongatxurak. K. Piper.

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: A Ze Flaxa-Eri. Amilotx
17:00: Amilotx-Torrekua. Bayer
18:00: Bayer-Artusamak. Torrekua

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Txipiron-Irubide. Errotagain
10:30: Pagomendi-Errotagain. Timofonika
11:30: Argandolas-Timofonika. Mongatxur.
12:30: Mongatxurak-A Ze Flaxa. Argandol.
16:00: Bayer-Dedo Pafarru. Artusamak
17:00: Artusamak-Ortzi. Bayer
18:00: K. Piperrak-Kanpazar. Ortzi
19:00: Bar Ugarte-Bicip. Igartua. K. Piper.

C MULTZOA		P	J
1. Errotagain	27	9	
2. Artusamak	22	9	
3. Dedo Pafarru	19	10	
4. Bayer	15	10	
5. Pagomendi	15	8	
6. Argandolas	13	10	
7. Ortzi	7	10	
8. Patxaran	6	10	
9. Timofonika Team	3	10	
10. Bildurbarek	0	0	

ARGI IBILI!

GABONETAN TXAPELKETAK ATSEDENALDIA HARTUKO DU

Oraingo astebukaerako partiduen ostean, Labegaraietako txapelketak atsedenaldira hartuko du. Hurrengo jardunaldia urtarrilaren 12an eta 13an jokaturako da. Bestalde, antolaketa batzordeak jakin arazi duenez, Ortzi taldeko Jose Diaz jokalaririk partidu bateko zigorra bete beharko du.

GORA ETA BEHERA

THT ETA PATXARAN TEAM

B multzoan, THT taldeak 2-1eko emaitzarekin irabazi zion sailkapenean aurretik zuen Vacalouras taldeari. Patxaran Team taldeak ere ustekabean Ortzi hartu zuen mendean, erraztasun handiz gainera (4-1).

AMILOTX ETA ETENGABE

Amilotx taldeak bi partidu besterik ez ditu irabazi orain arte. Azken jardunaldian 0-6 galdu zuen Eri taldearen aurka. Golik ez egitea zaila da benetan. Etengabek, berriz, 15 gol jaso zituen Aterperen kontra. Hori zaparrada!

KARTELDEGIA

FUTBOLA
Bergara-Urki
Neskak. Zapateria. 15:30. Ipintza.
Bergara-Burumendi
Lehen mailako gazteak. Zapateria. 17:15. Ipintza.

ESKUBALOIA
Bergara-Tolosa
Senior mutilak. Domeka. 12:00. Kiroldegia.

SASKIBALOIA
Bergara-Gros
Kadete mutilak. Zapateria. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA
Gabonetako txapelketa
Finalerdiak benjamin kategorian (A, B eta C mailak) eta alebin eta infantiletan (B maila). Domekan, abenduak 23, Udal Pilotalekuan, 10:00etan.

Gipuzkoako txapelketa
Bergara-San Esteban (Kadeteak)
Bergara-Añorga III (Gazteak)
Bergara-Añorga (Senior banaka)
Bergara-Zestoa (bigarren mailako seniorrak)
Domekan, hilak 23, Udal Pilotalekuan, 12:00etan.

EMAITZAK

FUTBOLA
Bergara 1 Mundarro 0 (Preferente maila)
Intxurre 2 Bergara 1 (Lehen erregionala)
Almen 1 Bergara 7 (Neskak)
Bergara 8 Aloña Mendi 1 (Ohorez. gazteak)
Segura 1 Bergara 1 (Lehen mailako gazteak)
Bergara 1 Sto. Tomas Lizeoa (Ohorez. kadeteak)
Bergara 0 Aretxabaleta 0 (2. mailako kadeteak)
Bergara 2 Vasconia 1 (Infantilak)

ESKUBALOIA
Donibane 37 Bergara 19 (Senior mutilak)
Hondarribia 26 Bergara 21 (Gazte mutilak)
Bergara 20 Legazpia 3 (Kadete mutilak)

SASKIBALOIA
Bergara 44 Andoain 43 (Senior mutilak)
Tolosa 52 Bergara 76 (Gazte mutilak)
Bergara 34 Tolosa 72 (Kadete mutilak)

PILOTA
Añorga 22 Bergara 7 (Senior banaka)
Zestoa 15 Bergara 22 (2. mailako seniorrak)
Bergara 22 Aretxabaleta 10 (Lehen mail. seniorrak)
Tolosa 22 Bergara 7 (Kadeteak)



NISSAN

**PRIMERA.
PROBA EZAZU. INFORMA ZAITEZ.
ETA ONDOREN, ZU ZEU.**

**NISSAN PRIMERA. ORAIN,
400.000 PEZETARAINOKO
BEHERAPENAREKIN**

Ni ez naiz automobiletan aditua.
Segurtasuna, bizi-kalitatea eta, gezurra
dirudien arren, onena prezio hoberenean
lortzen saiatzen den pertsona naiz.
Eta, hara, PRIMERA segurua da,
erosoa eta erantzun ezin hobe du.
Benetan diotsut, Nissan Primera automobil
ederra da eta, nire ustez, beste inork ez dit
horren pare eskaintzen.


**ERAMAN EZAZU ORAIN
ETA EZ EZAZU ORDAINDU 2002A ARTE.**

**5 URTEKO
BERMEA
KM MUGA BARIK**

ALDIBI AUTOAK, S.A.


Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate

Opariak jasotzea zoragarria da! Eta egitea, erraz-erraza!



L'eau d'Issey perfumea

AMAIA USAINDEGIA
Barrenkalea 25. 943 76 16 97



Canat emakume pijama

IGARTZA MERTZERIA
Irala 5. 943 76 24 88



Hom barruko arropa

IGARTZA MERTZERIA
Irala 5. 943 76 24 88



Chloe betaurrekoak

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai 16. 943 76 15 75



Unno lentzeria

GALLASTEGI JANTZIDENDA
San Pedro 15. 943 76 10 85



Zone jertseak

LAKET JANTZIDENDA
Barrenkalea 35. 943 76 29 46



Poltsa eta osagarriak

GARNISH
San Pedro 12. 943 76 03 57




Daneva jantziak

LAKET JANTZIDENDA
Irala 5. 943 76 27 16



Escorpion jantziak

IKUSBI JANTZIDENDA
Irala 5. 943 76 53 09



Esmeraldak eta perlak

ETXEBERRIA BITXIDENDA
Bidekurutzeta 16. 943 76 23 94



Punto Blanco pijama

GALLASTEGI JANTZIDENDA
San Pedro 15. 943 76 10 85



La Isla kamisetak

JOLAS OPARIDENDA
Barrenkalea 27. 943 76 46 48

Zorionak eta urte berri on guztioi!



Figfort lentzeria

GRACIAN MERTZERIA
Bidekurutzeta 6. 943 76 10 25



Oakley erloju digitala

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai 16. 943 76 15 75




Esteve Sitamurt arropa

GABILONDO PUNTUZKO ARROPA
Irala 5. 943 76 27 83



Poltsa eta osagarriak

SELENE OSAGARRIAK
Irizar 2. 943 76 28 14



Narruzko jaka

XUXU NARRUA ETA BAKEROAK
San Pedro 14. 943 76 07 55



Nominal gauerako jantzia

MIRARI JANTZIDENDA
Martoko 34. 943 76 23 93



Gorila oinetakoak

LONBIDE OINETAKO DENDA
Bidekurutzeta 5. 943 76 10 57




Belcor lentzeria

NEREA MERTZERIA
Simon Arrieta 1. 943 76 19 52



Cecilia de Rafael pantyak

GANTXEGI MERTZERIA
Telesforo Aranzadi 2. 943 76 00 79



Estazio metereologikoa

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai 16. 943 76 15 75



Durbo barruko arropa



GRACIAN MERTZERIA
Bidekurutzeta 6. 943 76 10 25



Lorontzia eta osagarriak

ZAIAZKO ETXERAKO OSAGARRIAK
Telesforo Aranzadi 3. 943 76 10 66

Gabon zoriontsuak izan!



ARRASATE

a, eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

a, eme sukaldeak eta

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab.

943 77 10 12 / 943 77 14 92

Sofa Leku

Zigarrola 1, 5 pab. 943 77 14 92



**Amuebladora
Mondragonesa**

WWW.GRUPO-ACEME.COM



Guztira, 220 lagun inguruk hartuko dute parte Gabonetako kontzertuan. Argazkian, iazko ekitaldiaren irudi bat.

Udal Bandak, Aritzetak, Orkestrak, Orfeoia eta Orfeoi Gazteak hartuko dute parte

Gabonetako kontzertua zapatuan Udal Pilotalekuan

EDU MENDIBIL

Ohizkoa den moduan, herriko musika taldeek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Gabonen atarian. Kontzertua bihar, zapatua, izango da, Udal Pilotalekuan, 22:00etan. Amaieran Guridiren *Eusko irudiak* lana joko dute talde guztiek elkarrekin.

Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoa, Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gazteak hartuko dute parte biharko kontzertuan. Guztira, 120 instrumentista inguru eta 100 bat abeslari batuko dira Udal Pilotalekuan.

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Udal Musika Banda izango da aurrena. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean, *Hanover festival* (Sparke konpo-

sitorearena) lana joko du Udal Musika Bandak. Jarraian, Imanol Urtzelaik zuzentzen duen Aritzeta abesbatzak ondoko kantuak eskainiko ditu: *In the first light* (Domínguez), *Contigo en la distancia* (Portillo), *Prayer of St. Francis* (Delgado) eta *O Eguberri* (Duluq). Horren ondoren, Orkestraren txanda izango da. Reed konpositorearen *Armenian dances* lana interpretatuko dute Orkestrako kideek, González Chirlaqueren batutapean. Bestalde, Orfeoia eta Orfeoi Gazteak elkarrekin abestuko dute zapatuan. David Azurtza izango da zuzendari lanetan, eta hiru obra prestatu dituzte biharko: *Baliaren bertsioak* herrikoia (Azurtzak berak moldatua), *Dos poemas de Marc Granell* (Julio Domínguezena) eta, azkenik, *In dulci jubilo* (G. Ph. Telemann konpositorearena).

GURIDIREN EUSKO IRUDIAK

Kontzertuaren amaieran, talde horiek guztiek Jesus Guridi (1886-1961) konpositore arabarraren *Eusko irudiak* lana eskainiko dute. Alfredo González Chirlaque arituko da zuzendari lanetan. Bere hitzetan, "orain dela zazpi bat urteko Gabonetako kontzertuan jo genuen, eta pieza aproposa iruditzen zaigu Gabonetarako, gai herrikoia eta Gabon kantuak tartekatzen direlako. Indar handiko obra sinfoniko korala da, oso erritmikoa eta dotorea, gainera". Gabonei ongietorria egiten dion kontzertua izango da biharko, eta, aspaldiko ohiturari eutsiz, *Adeste fideles* Gabon kantu eza-gunak emango dio amaiera kontzertuari.

Kontzerturako sarrerak 1.000 pezetan salduko dira ohiko tokietan. 26 urtetik azpikoendako 750 pezetan izango dira salgai.

LABUR

Bergarako pintoreen erakusketa zabalduko dute Gabonetan kultura etxean

Urtero bezala, Bergarako pintoreek erakusketa egingo dute Gabonetan kultura etxean. Erakustokia ohiko ordutegian izango da zabalik: aste barruan 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Forum Cinematographe taldearen eskutik, 'Juntos hasta la muerte' filma hilaren 27an

Forum Cinematographe taldeak antolatuta, datorren egunean, hilak 27, Raoul Walsh zuzendariaren *Juntos hasta muerte* (1949) western klasikoa eskainiko dute Novedadesen, 20:00etan. Jatorrizko bertsioan emango dute, gaztelaniazko azpiztituluekin.

Udo Frosch eta Josu Iñiguez artisten lanak Artekale pizzerian ikusgai

Udo Frosch eta Josu Iñiguez artisten erakusketa zabalik dago Artekale pizzerian. Aspaldian Bergaran bizi den Udo Frosch alemanaren tailak eta eskulturak eta Josu Iñiguez arrasatearraren margolanak ikusgai izango dira abenduaren amaierara arte.

Tutik ere Clowns pailazoen emanaldia abenduaren 30ean

Tutik ere Clowns pailazo taldeak *Ez adarrik jo* ikuskizuna eskainiko du datorren abenduaren 30ean Udal Pilotalekuan, arratsaldeko 17:00etan. Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoen osatzen dute Tutik ere Clowns duela 10 urtetik hona. Bergaran 1998ko aratusteetan izan ziren azkeneko aldiz, eta *Pan pan hasteko, pan bukatzeko* lana antzestu zuten orduan. *Maletxoarekin* lanarekin ere ari dira herriz herri.

ZIRKOKO PAILAZOAK

Gari, Montxo eta Jose Lontxo zirkoko pailazoen hirukote klasikoa osatzen dute, eta Bergarara ekarriko duten *Ez adarrik jo* ikuskizunean musika, magia edo zirkoko esketx tradizionalak tartekatzen dituzte. Ikusle gaztetxoekiko harremanak ere berebiziko garrantzia dauka.

Sarrerak 300 pezetan izango dira salgai. Helduek 500 pezeta ordaindu beharko dituzte.



ARTXIBOA

Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoen osatzen dute Tutik ere Clowns taldea.

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12





BERGARA
Urko Sarobe
27an 4 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta aitona-amonak.



BERGARA
Amaia Elortza
22an 3 urte. Urte askotarako pittin! Gurasoak eta Maddi.



BERGARA
Garazi Plazaola
23an 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak; batez ere, Joanes.



BERGARA
Ainhoa Molpeceres
23an 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Asier Sampietro
9an 6 urte. Urte askotarako! Malen, Unai eta beste fuztiak.



BERGARA
Leire Balanzategi
29an 9 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Unai.



BERGARA
Asier Laría
30ean 7 urte. Urte askotarako! Eneko eta gurasoak.



BERGARA
Nora Blanco
21ean 4 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta ahizpa.



BERGARA
Olatz Barragan
26an 2 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta anaia Unai.



BERGARA
Oier Barragan
26an 2 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta anaia Unai.



BERGARA
Belinda Romero
Gabonetan Bergaran. Ongi etorri! Lagunak.



BERGARA
Amaia Jauregi
25ean 8 urte. Urte askotarako! Mariñe eta familiakoak.



BERGARA
Asier Varela
29an 3 urte. Zorionak! Gurasoak, aitona-amonak eta familiakoak.



BERGARA
Maria Luisa Elortza
21ean urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak, Luis eta Leire.



BERGARA
Mikel Martinez
8an 8 urte. Urte askotarako! Etxekoak, Marisa eta Yanire.



BERGARA
Gorka Mendoza
21ean Bergaran, Londresetik bueltan. Welcome! Lagunak.



BERGARA
Jennifer De Oliveira
27an 10 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Josu Irizar
24an 9 urte. Urte askotarako! Etxekoak; batez ere, Leire eta Unai.



BERGARA
Saul Diez
26an 7 urte. Urte askotarako! Julen, Mireia eta familiakoak.



BERGARA
Felix Barrocal
4an 34 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Markel.



BERGARA
Agapita Loidi
24an urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



ELGETA
Naren Muñoz
6an 4 urte. Urte askotarako! Eskolako lagunak.



BERGARA
Ainhoa Oñederra
26an 6 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



ANTZUOLA
Alaitz Mata
3an urtebete. Urte askotarako! Etxekoak.

BABESLEA

Gabonetako opariak egiteko...



ERREBELATUAK Album bat, Kopia index-a eta erroilu bat opari. **ARGAZKIGINTZA DIGITALA** eta oro har argazkigintzaren inguruan behar duzun material guztia.

ZERBITZU DIGITALA Erretratu zaharren eta bestelako konponketak, fotomuntaiak eta abar...

ESKANER ZERBITZUA Argazki, diapositiba edo gardenkiak eskaneatzeko bidea. Curriculumerako, Internetarako, eta abar...

KOPIA DIGITALAK Arxibo informatiko batetik. (Disketea, optikoa, zip-a, CD rom-a...)

ARGAZKI • Barrenkalea 16 • Tel. / Faxa: 943 76 20 66

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara
Elgetan: Erosle-Baltxungo

Larrañaga

BANATZAILEA

Txanpaina, Errioxako ardoak, likoreak, Gabonetako saskiak...

Zuzen-zuzenean *etxera* eramaten dizugu!

Zorionak!

Martoko 32, behea
BERGARA

Tf. 943 76 45 94
Mobila 907 - 65 76 34

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BERGARAN
BULEGO BERRIA



BERGARA
Ibargarai 3.
943 76 97 97


LEGAZPI
Santikutz 8.
943 73 05 25

10 URTEKO
ESPERIENTZIA!

Ion
Murgizu

Orotariko pintura
Iztukuak
Papereztatzeak
Imitazioak

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iiion@euskalnet.net



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze bi kaletan daude farola hauek?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Ezkiea

Tilia sp.

MAITANE ARIZABALETA

Ezkiea, lorezaintzan maiz landatutako espeziea, leku hotz eta hezeetan hazten da, Herrietako pasealeku eta parkeetarako oso zuhaitz aproposa da, hostoek itzal handia ematen baitute. Bergaran, Kiroldegi ondoan eta Matxiategiko pasealekuan daude. Zenbait lekutan banaka ere ageri dira, Oregi etxean eta Usondo parkean, esate baterako.

Urteetan lepatuak izan dira (Santa Anakoa adibidez). Ondorioz, bere egurra goitik behera pixkanaka usteltzen joaten da, zuhaitza urte batzuetan usteldu egiten da, eta arazoak sor ditzake haize handiekin. Orain dela bi urte, esaterako, erresidentzia aurrean zeuden ezkiak bota behar izan zituzten. Ezki hauen egurra Gorlan da orain, eta animaliei babesa ematen die.

Fitoterapian, batik bat, loreak erabiltzen dira, nahiz eta, adar txikiak, hostoak eta azala ere erabili. Barne erabileran, lasaigarri gisa oso eraginkorra da, baita gripea edo katarroa sendatzeko. Kanpo erabileran, aldiz, ile erorketa galerazteko eta zauriak orbantzeko erabiltzen da.

“Pasealeku eta parkeetarako oso aproposa da, itzal handia ematen du eta”

GALDEDEBALDE

- 1.** Orain dela 10 urte, herriko 42 taldek Euskara hitzarmena sinatu zuten. Zein egunetan?
A/ Abenduaren 26an.
B/ Abenduaren 21ean.
C/ Abenduaren 24an.
- 2.** Zein da Tutik ere Clowns pailazo taldeak Gabonetan Bergaran antzeztuko duen ikuskizuna?
A/ Ez adarrik jo.
B/ Zelako barrea.
C/ Jose Lontxo eta biok.
- 3.** Zapatuko Gabonetako kontzertuan talde guztiek elkarrekin lan bat eskainiko dute. Zein?
A/ Katuska.
B/ Carmina Burana.
C/ Eusko irudiak.



Super BMk emandako **5.000 pezetako erosketa-bonoa** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FERNANDO AZKARATE erentzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa.

Zorionak Fernandori!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ipiñari / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ganba handia

15-25 pieza (kilo bat).

10,19 €

1.695 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



EDU MENDIBIL



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrial
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kordinak, kortinoiak,
koltzak, edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko abenduaren 21a / 94. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Aurtengo aurrekontuei 78 milioi gehitzea erabaki zuten abenduko osoko bilkuran

AINZANE IRIZAR


Kreditu aldaketarako espedientea hastea onartu zuen Udalak, joan zen abenduaren 5ean egindako osoko bilkuran. Horrek esan nahi du, aurtengo urterako aurrez ikusitako aurrekontuari 78 milioi pezeta gehituko diola Antzuolako Udalak.

EAJ-EAko ordezkariak aurkako botoa eman zioten kreditu aldaketarako espedientea hasteko proposamenari, eta EHko bat abstenitu egin zen. Azkenean, alkatearen kalitateko botoarekin, aurrera atera zen erabakia.

Aurrekontuak onartu zituztenetik, aurrez ikusi ez zituzten hainbat gastu sortu zaizkio Udalari. Izan ere, abian jarrita zeuden hainbat proiektu eta lanek ezusteko bat baino gehiago sortu dute. Horregatik erabaki dute kreditu aldaketa hori egitea, Unamuno alkatearen esanetan.

OLARAN ETXEA

Alde batetik, Olanan etxearen proiektua dugu. Proiektu horrek "hainbat akats eta hutsune zeuzkan", azaldu digu alkateak. Bes-



Sagastiko urbanizazio lanetan, mendiari eusteko lan handiak egin behar izan dituzte.

teak beste, uraren kanaloirik ez zuen proiektuak, eta hainbat neurketa gaizki eginda zeuden.

Olanan osteko inguruaren urbanizazio proiektuan ere izan

da aldaketarik. Lanekin hasteaz bat, lurra mugitu egiten zela ohar-tu ziren; izan ere, lur hori duela ehunka urte mendian behera etorritakoa zen. Urbanizazio lane-

tarako ateratako lurra ezin izan zuten betelanetarako erabili; garraiatu beharra izan zuten, eta betelanetarako, kanpotik ekarri behar izan zuten lurra. Gainera,

Olanan etxean eta Sagastiko urbanizazio lanetan hainbat gastu sortu zaizkio Udalari

mendiari eusteko lan handiak egin behar izan dituzte, horrek guztiak dakartzan kostuekin.

EAJko Jose Angel Zabaloren esanetan, "obra horien inguruko informazioa aztertu ondoren, ikusten dugu prozedimendua ez dela normala izan". Hori guztia zeharo argitu arte ez zutela aldeko botorik emango adierazi zuten EAJko ordezkariak osoko bilkuran. Era berean, kalean gai honi buruz dabiltzan zurrumurru asko faltsuak direla ere adierazi digu Zabalok.

MIKEL LARRAÑAGA ZINEGOTZI BERRIA

Jose Luis Kortabarriak dimisioa aurkeztu zuen abenduaren 5ean. Kultura batzordeko zinegotzia izan da Kortabarria. Orain, Mikel Larrañagak hartuko du Kortabarriak lagatako lekua.

HERRITARREN HITZA / Iñigo Ramírez de Okariz • Irakaslea

Kudeaketa

Trafikoa gai bezala hartuta hemen idatzitako azken artikulua zer pentsatu eman zidan; edo, hobeto esanda, eman zigun. Herritar bat kezkatuta azaltzen zen udaletxekoa den langile batek bere lana ongi betetzen ez zuelako. Ezin esan idatzitakoa ezer barik pasatu zenik herrian, lagun arteko tertulian ere herritarrek emandako iritziei buruz aldeko eta kontrakoak azaldu zirelako. Morroia edo ugazaba, langilea edo nagusia ote zen erruduna zen gure eztabaidetan adostasun ezaren puntua. Hau da, batzuek, Udala enpresa pribatu

bezala hartuta, alkatea jartzen zuten egoera horren erruduna; beste batzuek, Udala, enpresa publiko (eta gure kasuan txikia) izanik, langileriaren profesionalitate mailan jartzen zuten akatsa.

Udaleko kudeaketa, orain eta beti izan da eztabaidatzeko gaia: teknikariak euren lana ongi betetzen ez dutelako, funtzionario hauek ahalik eta lan gutxien eginez bizi direlako... Beraz, diagnosti-



"Jendeak nahiago izaten du kalean jardutea"

ko honetara iritsi baldin bagara, zein den egoera horren arrazoia ikertzea falta da.

Lau urtetik behin, herritarrek aukera izaten dute ordezkariak aukeratu eta udaletxean lanean sartzeko. Egia esanda ez da erraza izaten jendea aurkitu eta ustez zinegotziak izango

diren zerrendak betetzea. Izan ere, gauza bat da kalean jardutea, eta beste bat, behar den tokian esan eta konponbide

bat aurkitzen lan egitea. Lan gogorra da, eta esperientziak dakigu jendeak nahiago duela lehena bigarrena baino, kalean jardutea, alegia, eta ez konponbideak topatzen lan egitea.

Egia da langile talde batek ez baldin badauka nor agindu, nor bideratu, erreferenteak galduz desmotibatu egiten dela, eta berrantolatu egin behar dela.

Arazaok arazo, dedikazio osoa duen alkateari dagokio herritar batek adierazitako kexa hori une honetan egiazkoa den ala ez ikertzea, eta ahalik eta azkarren (eta ongien) horri konponbide bat aurkitzea.

LABUR

Arbulu-Mendizabal bikoteak irabazi du pilota txapelketa

Zapatu arratsaldean jokatu zituzten herri mailako eskuz binakako pilota txapelketako finalak. Arbulu eta Mendizabalek osatutako bikotea izan zen lehen mailako txapeliduna, Aranburu eta Lizarralde-ri 22 eta 18 irabazi ondoren.

Bigarren mailan, berriz, nabarmenagoa izan zen bi bikoteen arteko alde. Larrea eta Aranguren izan ziren bigarren mailako irabazleak; 22 eta 10eko emaitzarekin nagusitu zitzaizkien Sansebastian eta Iparagirrerri.

BASERRIZBASERRI/ Lausagarreta



DANTZALDIK ETXAURREAN Kaletik ia bi kilometrora dago. 1391koa da baserri honi buruz dagoen lehen aipamena, eta Geronimo Ibanes Lausagarretaren izenean zegoen garai hartan. Gaur egun etxebizitza bat besterik ez du, baina XIX. mendean bi ei zituen. Badago baserri honi buruzko datu bitxi bat: 1927an, Miguel Mendiarez Lausagarretako biztanleak, baserrian ardoa saldu, janariak eman eta kafea eskaintzeko baimena eskatu zuen. Ez zuen lortu, Uzarragan bazegoelako taberna, baina azkenean, etxe aurrean batzarrak eta dantzaldiak egiteko baimena eman zioten. Gaur egun Jose Luis Telleria bizi da hantxe. /AINTZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

ANTZUOLAKO HIZKERAN

ESAMOLDEA

- **ALPERRIK GALDU**
 1. Hondatu. *Esnia alperri(k) galduta dago.*
 2. *Ez alperrik galtzia: ondo moldatzea. Diru gutxi ibili arren, haura etzan alperri galduko, ez.*

ATSOTITZA

• **Itturri bidian dabilen pitxarra apurtzen da.** Dabilenari gertatzen zaio-la esan nahi du.

HITZAK

- **ERRENDIDU**
 1. Etsi.
 2. Batek bestea menderatu. *Burrukan hasi zien, eta batak bestia laister errendiu zeban.*
 3. *Loguriak errendiu. Luak erreta zeguan, baiña errendiu da, horregaittio!*
 4. *Gastatu. Kostako jako daukan diru danak errenditza!*

• **GOGAIKARRI**

Gogaitzen duena, aspergarria. *Gogaikarri bat izen bihar jonan, iñork etxonan nahi izeten berakin alkarterik.*

Jone Larrañagaren 'Antzuolako hizkera' liburitik

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA/LARRIALDIK

- DYA 943 78 71 57
- Gurutze Gorria 943 76 55 76
- Medikua 943 76 62 23
- Praktikantea 943 76 63 80
- Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40

UDALA

- Udaletxea 943 76 62 46
- Liburutegia 943 76 60 65

BESTELAKOAK

- Idolaz 943 78 60 12
- Herri ikastetxea 943 76 62 68
- Jubilatuena elkartea 943 76 62 71
- Abadetxea 943 76 64 16
- Anelkar (Kontxi) 943 78 70 65
- Taxiak:
- Antonio Fernández 669 15 65 40
- Jesus M. Fernández 607 31 85 60

MEZAK

ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

LABURRAK

PAUSOKAREN BATZARRA

Joan zen asteko martitzenean izan zuen urteko batzarra Pausokak. Besteak beste, datorren ikasturterako asmoei buruz aritu ziren. Umeendako jangela jartzea da Pausokaren erronka nagusia hurrengo ikastaldirako. Jangelan izena emateko interesa dutenen zerrenda osatu nahi dute urtarrilerako. Nahi duzenok, beraz, Pausokako arduradunetako bat den Amaia Etxanizengana jo dezakezue.

BARKERORI OMENALDIA

Bi urte bete dira Xabier Barkero antzuolar gaztea hil zela. Ordutik urtero egin ohi duten moduan, aurten ere omenaldia egingo diote Antzuola Kirol Elkartekoek. Abenduaren 29an izango da hori, arratsaldeko 16:00etan. Antzuolako erregional taldeak Eibar B taldearen aurka jokatu du.

BOTEPRONTOAN/ Amaia Zabaleta · Kirol teknikaria

“Herriko kirol egoeriaren diagnosa eginda dago, eta orain, kirol politikia zehaztia da nere lana”


Azaroan hasi zen Amaia kirol teknikari lanean. Udalarendako kirol politika zehaztea izango da bere eginbeharra. Printzipioz, lau hilabetean arituko da horretarako lanean.

Zein izango da zure lana?
Herriko kirol taldiek beti esan izan dabe Udalian kirol teknikari bat bihar dala. Azkenian, lau hilabeterako besterik ez bada be oraingoz, hasi naiz lanian. Orain dala bi urte herrixan kirola ze egoeratan zeguan ikusteko, diagnosi bat egin zan, eta neuk egin neban. Orain, nere lana Udalaren kirol politikia markatzea, zehaztia izango da. Dana dala, lau hilabete honetan ez da nere

lanaren emaitzarik ikusiko, kalian ez da nabaritu hori, baiña gerorako ze politika eraman bihar dan, behintzat, markatuta geratuko da, politikuek nere proposamena onartzen badabe, behintzat. Eta nere lanarekin lotuta, esan bihar da, kirol politikia zehaztiaz gain, herriko kirol talde edo bestelakuek atiak zabalik dauzkela, edozer laguntza bihar izanda be. Hori be nere lana da eta.
Eta zein da Udalaren eginbeharra kirolari dagokionez?
Hiru alorretan banatzen da Udalaren zeregiña: guztiontzat kirol eskaintzak antolatzea, eskola kirola bultzatzea eta instalaziñuen arduria be badauka.



Ze egoeratan dago Antzuola kirolari dagokionez?
Alde batetik, kirol klubak behera doaz, gero eta indar gutxiago dauke herri maillan; baiña hori ez da Antzuolako kontua bakarrik, herri danetan dabil hori pasatzen. Beste alde batetik, instalaziñuen biharra be badagola pentsatzen jat. Batez be estalittako instalaziñuena, frontoia bakarrik daukagu-ta.
Kirol eskaintza zabala antolatzen du Udalak herri-tarrendako, ezta?
Bai, aerobik eta gimnasiako eskolek sekulako arrakastia eduki dabe herrixan hasieratik; jendia pozik dago; zerrendatan zain dagoen jendia eta dana daukagu.



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LEKV-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 201eko abenduaren 21a / 80. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 2570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Abenduaren 22an Intxortatik etorriko da Olentzero haurren gutunak jasotzera

OXEL EROSTARBE

Konturatu orduko aurtengo urtea ere amaitu da. Hotzarekin batera, heldu dira aurtengo Gabonak, eta bailarako herri guztiak moduan, Elgeta ere argiztatu dute. Gainera, bihar iluntzean etorriko da Olentzero herriko haurrek idatzitako gutunak jasotzera.

Bihar zapatua, iluntzeko 19:00etan etorriko da Olentzero herriko neska-mutikoen gutunak jasotzera. Aurten Intxortatik etorriko da Olentzero, eta Salvador kalearen amaieran egingo diote ongietorria haurrek. Intxortatik astoan jaitsiko da aurtengoan Olentzero, eta herrian zehar ibili ondoren plazara joango da haurrekin hitz egin eta hauek idatzitako gutunak jasotzera.

Goizean, eskolako haurrak Gabon kantak abesten ibiliko dira herriko kaleetan.



ARTXIBOA

Aurtengoan astoan etorriko da Olentzero herriko neska mutikoen gutunak jasotzera.

GABONETAKO HAUR PARKEA

Aurtengoan Maya ingurune taldeak izango du Gabonetako Haur Parkea antolatzeko ardura. Abenduaren 28an, urtarrilaren 3 eta 4an arratsaldeko 15:30etik

18:00etara zabalduko ditu atea parkea.

Abenduaren 28an, barikua, Jolasez blai eguna antolatu dute. Herri kirolak, lehiaketak eta

hainbat joko izango dira.

Urtarrilaren 3an, eguna, Artisanen eguna egingo dute. Denetariko eskulanak eta sukaldaritzak ikastaroa izango dute haurrek.

Amaitzeko, urtarrilaren 4an Azoka eguna izango dute. Egun horretan tonbola egin eta musikarekin jolasteko aukera izango dute haurrek.

Zapatu goizean, eskolako umeak kalez kale ibiliko dira Gabon kantak abesten

Iluntzean plazan egongo da Olentzero haurrekin, euren gutunak eta eskariak jasotzeko

Maya ingurune taldeak izango du aurtengoan Haur Parkearen ardura

JENTREBISTAK/ Zer pentsatzen jatzu espaloiari emondako erabilera?



MIREIA MARKIEGI
37 urte

Holako edifiziua, eskolia bakarrik izateko oso haundixa pentsatzen jata. Tabernia jartzeko asmua dagola entzun dot, neri ondo pentsatzen jata.



IRAITZ BOLINAGA
20 urte

Ekintza batzutara jua izan naiz. Ez dot uste lehenau baiño gehixau egin diranik. Kulturarako diru gehixau egongo litzake Kafe Antzokixa eginda.



ELI AGIRREZABALAGA
41 urte

Ekintzak egin diran arren, inbertidu zan diruantzat gutxi izan dira. Ez dot uste Kafe Antzokixak ekintza gehixau egotia ekarriko dabenik.



ETOR SARASUA
27 urte

Egin zan inbersiñua kon-tuan hartuta, lokala gauza gehixau egitteko erabili biharko litzake. Aretuari bizitasuna emongo litzake Kafe Antzokixak.



MIREIA BERRIOZABAL
30 urte

Ekintzak egin dira, baiña ez dot uste lehenau baiño askoz gehixau diranik. Lokala eginda dagonez, Kafe Antzokixa egittia ondo ikusten dot.

LABUR

Gabonetako pilota txapelketa hasiko da abenduaren 27an

Abenduaren 27an hasiko da haurrentzako Gabonetako pilota txapelketa. Dagoeneko 40 bat neska-mutikok eman dute izena, baina garaiz dabil-tza oraindik eman ez dute-nak.

Sei eta hamahiru urte bitarteko umeek, mailatan banatuta hartuko dute parte txapelketan.

Txapelketako finalak abenduaren 31n izango dira. Sari banaketara bailarako pilotari ezagunak ekartzeko asmoa daukate antolatzaileek.

ELKARRIZKETA

ENRIKE GORROTXATEGI/KULTUR TEKNIKARIXA

“Kultur teknikari moduan guztiz ados nago Espaloia Kafe Antzokixakin”

O.E.

Kafe Antzokixan proiektuakin aurrera egittia erabaki danetik, Goibekokin siñatu biharreko hitzarmena gertatzen, proiektua finantzatzeko moduen billa eta egin biharreko billerak gertatzen dihardu teknikarixak.

Kultura batzordiak Espaloia aretua ekipatzen juateko proiektua eskatu dau, zein da asmua?

Toledo Taldiari Espaloia Kafe Antzokixan proiektua egiteko eskatzea erabaki giñuan. Proiektua egitten dan bittartian Goibekokin hitzarmen bat siñatzea da asmua, gero aretua ekipatzen juateko nahixakin.

Zer gauza hartuko dittu kontuan proiektuak?

Eskatu dan proiektuakin, barrua ekipatzia gura dogu. Barrua esaten dogunian, argiak, soiñua, jendia egoteko lekua egokitzea, taberna-jatetxia, lokalan diseñua eta iluminaziñua...esan gura dogu. Aretuan, Kafe Antzokixan proiektua aurrera eruateko bihar dan azpiegituria jarri nahi dogu.


Beste taldien eritzixa kontuan hartuko dozue?

Bai, proiektua egiten daben artian, aretuan inguruan interesa dauken talde eta erakundiekin egongo gara. Proiektua azalduko jakue eta beren eritzixa jaso. Proiektuan gainian kontsentsua lortzen saiatuko gara. Beste taldiek lekua eukiko dabela esan izan dau beti Goibekok.

Proiektua aurrera eruateko oztoporik badago?

Ez dakit oztopua dan, berba eginda gauzak konpontzen diralako. Oztopua baldin badago, Guraso edo Eskola Kontseillutik egin leike.

EAJ, Batasuna eta Gurasuak azaldu izan dabe, berez proiektuan alde dabela. Zein da kultur teknikarixan eritzixa proiektuan gainian?



O.E.


Espaloia aretua Kafe Antzokixan proiektua aurrera eruateko moduan ekipatu gura dogu

Kultur teknikari moduan, Kafe Antzokixan proiektuakin guztiz ados nago. Ez dot ikusten iñungo inkobenienterik, aretua egunero zabaltzian. Beste gauza bat, eskolakuekin edo egon leizken arazuak dira. Teknikari moduan proiektuan alde

egoteko arrazoiak badarela pentsatzen dot.

Goibekon proiektua aurrera ez bada eruatzen, zer irtenbide ikusten dötzazu aretuari?

Irtenbide haundirik ez, gutxi gorabehera orain arte moduan aurrekontuak emoten dabanakin gauza puntualak egitten jarraituko giñuke. Udalak beti eukiko dittu mugak aurrekontu alde-tik. Goibekok, dirua ataratzeko beste era bateko azpiegituria eruango leuke aurrera. Diru hori kulturarako erabiliko daben alde-tik, ondo ikusten dot azpiegitura hori jartzia. Proiektua zelan finantziau pentsatu bihar dogu, Udalaren asmua Kafe Antzokixan proiektua bultzatzia da eta.



Xabier eta Haritz txapelaren bila

Tolosan jokatu dute DV txapelketaren finala Xabier Ubera eta Haritz Laskurainek zapatuan. Arratsaldeko 16:30ean hasiko dira finalak. Ozkarbiko pilotariak txapela irabaztera irten-go direla ziurra da, hala ere, lan handia egin beharko dute Ageta eta Argoteri irabazteko. Goizean, ekitaldi bereziak izango dira txapelketaren hamargarren urteurrena dela eta.



Gabonetako bolo txapelketa aurrera

Zapatuan, abenduak 22, gaueko 23:00etan, Gabonetako bolo txapelketaren hirugarren jaurtitzea izango da. Oraingoz nahiko estu dago sailkapena, Sabin Arriaga, Sebas Arantzabal eta Amateo Goenagak seina txirilo botata dituzte eta. Txapelketa amaitzeko zapatuko eta abenduaren 29ko jaurtitzeak geratzen dira. Ea aurtengoan nortzuk diren txapeldunak.

Aintzane denda



zugandik gertu, behar duzun beste

Domingo Iturbe 4, ELGETA
Tel: 943 768297



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26
ELGETA
Tel: 768190

GOIO SARASUA

Igeltzeritza lanak
Tei atuak
Sukaldeak
Etxaurreak
Komunak

Otzango Behekoa Baserria
ELGETA
Tel: 943 86 01 56

ERRETRATUZAHARRA

Antzuolako txistularien alardea 1991n

Antzuolako txistulari guztiek, eta izandakoek, alardea ospatu zuten 1991ko maiatzaren 19an. Herri txikia izanik, txistulari talde handia ikus dezakegu argazkian. Gabonetan ere urtero izaten da txistularien emanaldia. Aurten, abenduaren 30ean izango da.

Goian, ezkerretik eskumara: Juan Jose Jauregi, Aitor Peñagarikano, Gotzon Iparragirre, Iker Manso, Iñaki Legorburu (gorago), Jose Luis Zabalo, Iñaki Zubillaga, Jose Angel Zabalo, Juan Tomas Zabalo eta Jesus Zabalo.

Bigarren ilaran: Eloy Igartza, Fernando Lete, Fernando Azkarate, Nerea Garitano, Igor Zubillaga, Argiñe Agirre, Amaia Toledo, Ander Aranguren, Bakarne Larrea, Jose Ignacio Jauregi, Aintzane Iraeta, Anton Valverde, Iñaki Elortza, Blanca Legorburu, Meltxor Legorburu, Itziar Manzisidor, Juan Gabriel Urriategi (atzean), Iñaki Arregi, Basili Ormazabal, Patxi Azkarate, Joseba Iparragirre, Felix Garmendia, Jesus Zubikarai, Migel Angel Artolazabal, Luis Azkara-



te, Pello Lete, Jose Luis Lizarralde, Xabier Legorburu eta Ruben Iturbe.

Hurrengo ilaran: Koldo Madariaga, Aitzol Jauregi, Jesus Maria Amasorrain, Izaskun Larrañaga, Andoni Larrañaga, Amaia Moreno, Isabel Elortza, Maite Zubikarai (aurraldean), Argitxu Mondragón, Johana Sánchez, Naiara Cuevas, Kontxi

Elortza eta Nerea Arregi (aurrean).

Behean, bigarrenean: Mireñ Karmele Iparragirre, Amaia Etxaniz, Noelia Matilla, Alaitz Jauregi, Ainara Urrutxi, Leire Lizarralde, Oihana Jauregi, Jaione Castro, Arkaitz Zabalo, Iker Larrea, Eneko Lizarralde eta Miriam Fortuna.

Makurtuta: Bittor Arbulu, Patxi

Olabarria, Andres Arbulu, Aintzane Muruamendiaraz, Nora Legorburu, Nekane Idiákez, Gervasio Legorburu, Aitziber Goñi, Eider Jauregi, Rakel Fortuna, Izaskun Fernández eta Oihana Domínguez.

Argazkia: Kontxi Elortza

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Elizako kanpandorrea erre zenekoa


Kanpandorre zaharra 1866an eraiki zuten. Oraingoa, berriz, 1952an bertan hasi ziren konpontzen. Izan ere, urte hartan, 1952ko urtarrilaren 26an, hain zuzen ere, tximista batek jo zuen kanpandorrea eta erre egin zuen.

Erre eta berehalaxe hasi ziren konpontzen, gaur egun daukagun kanpandorrea egiten, hain justu.



1950

Kanpandorrea erre baino pare bat urte lehenagoko argazkia duzue honako hau, 1952an erre zen-eta. Kanpandorre zaharra ikus daiteke.



2001

Gaur egungoa 1952an bertan hasi ziren konpontzen, berreraikitzen. Itxura antzerakoa duten arren, argi ikusten da bien arteko aldea.

M
MEMESA

INDUSTRI HORRIDURAK

Tel. 943 71 24 25
BERGARA



Zumelaga
JATETXEA

59 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz
margoak

Barnealde eta kanpoaldean
erreforma

Pintura zerbitzu osoa
Moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59
Bergara



Manufacturas
LARRAÑAGA

• Lan-babeserako artikulua
• Seinaleztapena
• Jantziak

Leizeaga 1. BERGARA
Tf. / faxa 943 76 59 53.




UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Gugan
konfiantza
izan duzen
guztioi,
zorionak eta
urte berri on!



San Juan, 1 A • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



Udazken kulturala 2001 Azken txanpa

2001.12.22, larunbata

Gabonetako kontzertua:

Udal Musika Bandak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak eskainia,

• 22:00etan Udal Pilotalekuan.



2001.12.24, astelehena

Olentzerok umeen kartak jasoko ditu.

• 19:00etan San Martin plazan.

2001.12.26, 27, 28, eta 29

Gabonetako haurren jolas parkea.

• Haurrentzat ur jolasak Agorrosingo igerilekuan:

Goizeko 10:30etatik 12:30etara,

• Haurrentzat jolas parkea Labegaraieta kiroldegian:

Arratsaldeko 3:30etatik 6:30etara



2001.12.30, igandea

Tutik ere Clowns pailazoen 'Ez adarrik jo' ikuskizuna

• 17:00etan Udal Pilotalekuan.

2002.01.05, larunbata

Bizar zurik umeen kartak jasoko ditu. 18:00etan.

• Errege kabalgata. 19:30ean.



BERGARAKO
UDALA

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu...

Eta zeramikako azken berrikuntzak.

Jakina, zurekin pentsatzen.

FAGOR 
Sukaldeko altzariak



JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.